

1. **BERRIAK:**

PLANTILAK

Ezinbestekoa da ahalik eta plantila kopuru txikiena erabiltzea. **Ahal izanez gero ikastexerako (edo etapako) plantila bakarra** erabiliko da, plantila berbera esleituta duten taldeak besterik ezin izango baitira konbinatu.

Iazko taldeak kargatzerakoan jarduerarik gabe agertuko dira, beraz, hauxe izango da taldeak plantila bakar batekin atxikitzeke garaia.

FET: Ordu-tegi sortzailea

Prest dago ordu-tegi sortzailea. Programa honek, tokian tokiko ordenagailuetan lan eginez, irakasleen ordu-tegiak osatzea ahalbidertzen du. Hauek, gero, "Ordu-tegiak (EED)" aplikaziora automatikoki eraman daitezke.

TALDEAK: Aktibazio-eta Desaktibazio-datak

Taldeei **Aktibazio-eta Desaktibazio-datak** automatikoki beteko zaizkie. Data hauek eskola egutegian dagokion mailari jarritako hasiera-data eta bukaera-data izango dira.

Talde bat sortua izan eta gero, bere aktibazio- edo desaktibazio-datak aldatuko balira, talde honi jarri zaizkion jarduerari taldeko data berriak automatikoki erantsiko zaizkie.

JARDUERA LEKTIBOAK: Aktibazio-eta Desaktibazio-datak

- a) "0 Bertsioan" lan egiten ari denean:
- **Aktibazio-data** automatikoki beteko da taldeko aktibazio-datarekin. Hau aldatu ahal izango da.
 - **Desaktibazio-data** automatikoki beteko da taldeko desaktibazio-datarekin. Hau aldatu ahal izango da..
- b) "1 Bertsioan" lan egiten ari denean":
- **Aktibazio-data** eskuz beteko da, orain arte bezala.
 - **Desaktibazio-data** automatikoki beteko da taldeko desaktibazio-datarekin. Hau aldatu ahal izango da..

Jarduera lektibo bakoitzeko Aktibazio- eta Desaktibazio-datak direla medio, Heziketa Ziklotan Lantokiko Prestakuntza eta ikasturte osoko iraupena ez duten moduluak kudeatu ahal izango dira.

JARDUERA EZ-LEKTIBOAK: Aktibazio-eta Desaktibazio-datak

Automatikoki beteko zaizkie, aurreko kasuan bezala. Data hauek eskola egutegitik ekarriko dira.

IRAKASLEAK: Aktibazio-eta Desaktibazio-datak

Iazko kurtsotik ekarritako ikasleei automatikoki jarriko zaie irailak 1eko aktibazio-data.

Bertaratu berriak direnei **Alta-datarako** ikastetxean azaltzen diren eguneko data jarriko zaie eta **aktibazio-data** kurtsoko hasierakoa izango da.

KONTSULTA DATA:

"**Akademiko ikastaroa aukeraketa**" aplikazioan dagoen aukeran, data zehatz bat adierazteko posibilitatea erantsi da. Horren bidez, EEDko egoera aukeratutako datan ikus daitezke. Ezer ez aukeratzekoan, egungo data azalduko da,.

2. EEDren BERTSIOAK:

EED aplikazioan sartu den informazioak, irakasle eta ikasleen ordutegi-taulen bidez, ikastetxearen jarduera orokorra erakustea du helburu.

Sartutako informazioa bi aldi desberdinei buruzkoa izango da:

- a) **0 bertsioa.** Ikastetxerako aurreikusitako funtzionamenduaren lehen irudi finko bat, ikasturtearen hasieran egindakoa, da. "0 bertsio " honek, beraz, ikasturtearen hasierako ordutegi-taula edo hurbilen dagoena agertu beharko du.
"0 " bertsioa balidatu eta itxiko da eta, ondorioz, "1. bertsioa " automatikoki irekiko da. "0 " bertsioa itxi ondoren, ezin izango da berorretan inolako aldaketarik egin.
- b) **1. bertsioa.** Ikastetxearen jardueraren irudi dinamiko bat da eta ikasturte osoan irekita egon eta funtzionamenduan ariko da. "1. bertsio " honetan ikasturtean zehar gertatzen diren aldaketa desberdinek agertu beharko dute:
 - Ikasleen altak/bajak.
 - Irakasleen altak/bajak.
 - Taldeen edo irakasleen ordutegietan gertatzen diren aldaketak.
 - Lantokiko Prestakuntza egin behar duten LHko taldeak.
 - Lau hilabeteko balorazioak HHIko taldeetan.
 - Ordutegi-tauletan gertatzen den edozein aldaketa.

3. PLANTILAK

Taldeetako "ordutegi hutsak " dira. Haietan saioak sartzen dira (9:00-10:00; 10:00-11:00; etab.).

Beren saioak hasi eta bukatzeko ordu berberekin egiten dituzten ikastetxeko talde guztiak plantila partekatu behar dute, saioak haien artean konbinatu ahal izateko. "Emateko talde " bat egiteko, jatorrizko talde ofizialek plantila bera partekatu behar dute.

Ahalik eta plantilen kopuru txikiena erabiltzeko gomendioa ematen da, plantila bera esleituta duten taldeak besterik ezin izango baitira konbinatu.

Goiz eta arratsaldeko ordutegiak dituzten ikastetxeetan (gaueko batxilergoa duten ikastetxeak, adibidez) plantila bakarra egitea gomendatzen da. Plantila horrek lanaldi osoa hartuko du eta goiz eta arratsaldeko taldeek erabili ahal izango dute. Talde bakoitzak dagokion plantilaren zatia erabiliko du eta bere ordutegiari ez dagozkion lerroak zuri utziko ditu.

4. IRAKASLEAK:

Altaren data: ikastetxean hasten diren data.

Aktibazioaren data: 0 bertsioan aktibazioaren data ikasturtearen hasiera-data izango da (besterik adierazi ezean, irailak 1 jarriko da). Ondorengoan ordutegia beteko da:

- Ikastetxean dauden irakasle titularrena.
- Ikastetxean ez dauden baina, aurreikuspenen arabera, ikasturtean zehar lanean hasiko diren irakasle titularrenak. Jarraian haien ordezkoen datuak ere sartuko dira eta ikastetxean hasten diren data, batzuetan ikasturtearen hasierakoa izango dena, izango da aktibazio-data gisa jarriko zaiena. Aplikazioak data hori titularraren desaktibazio-data gisa jarriko du. Titularraren ordutegi-taula kopia ahal izango da, baita beharrezkotzat jotzen diren aldaketa guztiak egin ere.
- Titularrak, aurreikuspenen arabera, ikasturtean zehar lanean hasiko ez direlako lanpostu hutsetan dauden ordezko irakasleak.

Desaktibazioaren data: desaktibazioaren data zuriz utzi daiteke edo, bestela, ikasturtearen bukaera-data adieraz daiteke.

Emateko mailak: lan egingo duen hezkuntza-mailak esleitu behar zaizkio irakasle bakoitzari. Emateko mailak esleitu gabe ezin izango da haren ordutegi-taula bete.

Irakasle titularrak: ikasturtean zehar lanean ari diren irakasleei beteko zaie bakarrik ordutegi-taula.

Ordezko irakasleak: ikastetxean hasten diren eguna jarriko da aktibazio-data gisa.

Ordezkoaren aktibazioa: ordezkatzen duen irakaslea zein den adieraziko da eta haren ordutegi-taula kopiatuko da. Taulak desberdinak izango badira, bi aukera daude: ez kopiatzea edo kopiatu eta, geroago, aldatzea.

Aplikazioak ordezkoaren aktibazio-data jarriko du titularraren desaktibatze-data gisa. Honek titularraren ordutegi-taula ezkutatu behar dela esan nahi du.

Irakasle titularraren berraktibatzea: beste batek haren ordezkapena egin duen irakasle bat ikastetxean berriro hasten denean, hasten den eguna jarriko zaio aktibazio-data gisa eta desaktibatze-data ezabatuko da. Aktibazio-data berri hori aurrekoaren ordezkoa izango da eta irakasleak aldeztu aurretik sartu zitzaion ordutegi-taula berreskuratuko du. Ondorioz, ordezko irakaslea data berri honekin desaktibatuta geratuko da. Honek ordezkoaren ordutegi-taula ezkutatu behar dela esan nahi du.

Ikasturtea lanaldi osoarekin hasten diren eta data zehatz batetik aurrera lanaldi-murrizketaren bat lortzen duten irakasle titularrak: irakasle horren ordutegi-taulara sartuko da eta ematen ez dituen saioak ezabatuko dira.

Ondoren, irakaslearen datu-fitxan "lanaldi mota " aldatuko da. (Urratsak ordena honetan egitea komeni da).

Irakasle "osagarriaren " datuak sartuko dira, behar den aktibazio-datarekin. *Inportantea: ez da---(r)en ordezkoa " aukera hautatuko*, ez baita ordezkoa, osagarria baizik. Horregatik, irakaslearen detaile-pantailatik ez da titularraren ordutegia kopiatuko.

"Irakasle osagarriaren ordutegi-taula " erlaintzetik kopiatuko zaio irakasle osagarriari dagokion irakasle "titularraren " ordutegi-taularen zatia eta, horretarako, "kopiatu " aukera erabiliko da. Ordutegi-taula osoa kopiatu ondoren, aldatu ahal izango da, baita interesgarri ez den zatia ezabatu ere.

Ordutegi-taularen aldaketa titularrari lehenago egiten bazaio, irakasle osagarriari ordutegi-taula osatzean ez du baliagarri izango zaion ezer izango.

Datuak gordetzea: ordutegi-taularen leihoa utzi aurretik, egindako aldaketak gorde behar dira.

5. TALDEAK:

Hiru talde mota daude: ofizialak, emateko taldeak eta gainditu gabeko ikasleen taldeak.

Talde ofizialak: hasieran sortu behar dira. Talde horietan osatzen dituzten ikasle guztiak egongo dira, ikasten dituzten irakasgaiak zeintzuk diren alde batera utzita.

Kalifikazio-aktak bakarrik talde ofizialei buruzkoak izango dira.

Talde ofizialak sortzean, salbuespenak, konbalidazioak...dituzten ikasleak sartuko dira. Eman beharreko saioak sortzean, ikasle horiei sartuko zaizkie, benetan ez egon arren, ebaluazio-aktetan ager daitezten.

Saioak emateko taldeak: ez dira hasieran sortu behar. Saioak emateko taldeak automatikoki sortzen dira, saioak irakaslearen ordutegi-taulatik osatzen badira eta aldaketaren batekin saioa ematen zaien ikasle kopuruan, bai ikasle horiek gutxitzeagatik, bai talde desberdinetako ikasleak taldekatzeagatik.

Gainditu gabeko ikasleen taldeak: aurreko ikasturteetako arloak, irakasgaiak, moduluak, esparruak...gainditu gabe dituzten ikasleak sartzeko sortuko dira talde horiek.

Taldeen sorrera: ordenaren arabera selekzionatu maila, txanda, kurtsoa eta, mailak badu, espezialitatea. Alias bat gomendatzen da aurreko kontzeptuak jasotzen dituen talderako.

Ikasle bakoitza talde ofizial bakarrean egon ahal izango da kurtso eta espezialitate berean.

Aktibazio-data: "0 bertsioan", oro har, saio baten aktibazio-data ikasturtearen hasierakoa izango da. Ordezko irakasle batek titularraren ordutegi-taula kopiatzen duenean, ez da aldaketarik egin behar saioak aktibazio-datan. Aplikazioak ordezko irakaslearen datuen bidez egokitzen du aktibazio-data.

Desaktibatze-data: desaktibatze-datak ez du taldea datu-basetik ezabatzen; bakarrik data hori baino lehenago aktibatutako saioak desaktibatzen ditu ordutegi-taulatik.

Taldeetan desaktibatze-data adieraztea komeni den kasuak:

- Lanbide Heziketako 2. kurtsoko taldeak: talde hauek ikasturteak bukatu aurretik aldatzen dute beren ordutegia, Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko. Talde horiek sortzean aktibazio-data = ikasturtearen hasierako data eta desaktibatze-data = Lantokiko Prestakuntza baino lehenagoko azken klase-egunaren data adieraziko dira. Desaktibatze-data horrek ez du taldea ezabatzen; dituen saioak desaktibatzen ditu.
- Ikasturtearen hasieran sortzen diren eta lauhilabeteak bukatzean desagertzen diren HHIko taldeak.
- Talde batek ikasturtearen bukaera baino lehenago ordutegi-taula aldatuko duela aurreikusten den beste edozein kasu.

6. ORDUTEGI-TAULA EGITEA:

Klase-saioak irakaslearen ordutegi-taulatik eta taldearen ordutegi-taulatik bete ahal dira. Ikastetxeak estrategia egokiena aukeratuko du, ondorengo puntuak kontuan hartuta:

a) Ofizialak ez diren taldeen klase-saioak sortzen direnean, irakaslearen ordutegi-taulatik betetzea komeni da, automatikoki sortzen baita emateko taldea. Emateko taldea (emandako alias batekin) sortu ondoren, taldeen zerrendan ematekoa bilatu beharko da ikasleen konbinazio bera erabili nahi den hurrengo aldia eta ez da emateko beste talde bat sortu behar.

b) Ikastetxeak taldearen ordutegi-taulatik sartu ahal ditu talde "ofizialei" ematen zaizkien saioak eta, osagarri gisa, gainontzeko klase-saioak irakaslearen ordutegi-taulatik sartu ahal ditu.

Saioa taldetik sortzea: klase-saio batean emateko taldea eta talde ofiziala bat badatoz, jarduerak ez du zailtasunik. Saioa, hasi eta bukatzeko ordua (ez du plantilarena izan behar baina tarte beraren barruan), irakasgai mota, emateko hizkuntza, gela eta irakaslea aukeratuko dira. Azken bi kasu hauetan testu-eremuak prediktiboak dira (lehen karakterra sartu ondoren, bat datozen puntuak erakusten dira).

Saio bat sortu ondoren, nahi adina aldiz kopiatu eta itsatsi ahal da. Kopiatu eta itsasteko ekintza taldearen ordutegi-taulatik egiten bada, aplikazioak saioa hasi eta bukatzeko ordua azken laukira automatikoki egokituko du.

Irakaslearen ordutegi-taulan kopiatzen bada, hau ez da gertatzen eta, horregatik, jatorrizko saioaren alta nola egin den alde batera utzita, kopiak taldearen ordutegi-taulatik egitea gomendatzen da.

Saio berean dauden bi klase-lan edo gehiagoren aktibatze-datak berbera izan behar du, betiere biak CHn agertzea nahi badugu.

Saioa irakaslearen ordutegi-taulatik sortzea: saioak talde ofizial guztiari eragiten badio, aurreko kasuan bezala jokatuko da. Saioa ematen zaien ikasle kopuruan aldaketarik izanez gero, emateko talde bat automatikoki sortuko da, bai ikasle kopurua gutxitzeagatik, bai talde desberdinetako ikasleak taldekatzeagatik.

Maila berekoak diren eta plantila bera duten taldeak elkartu ahal dira. Kasu honetan, agertzen diren irakasgaiak komunak besterik ez dira izango.

Laukia banatzea: bi irakasgai desberdin emateko prozesua irudikatu nahi bada edo klase-saio berean plantila desberdinak dituzten taldeak konbinatu nahi badira, **datuak irakaslearen ordutegi-taulatik sartzea** komeni da eta, horretarako, "**laukia zatitzea**" aukera erabiliko da. Lehen taldeko ikasleentzako saioa sartzen da eta, geroago, "**laukia zatitzea**" aukera erabiltzen da, gainontzeko saioa edo saioak sartzeko (jatorrizko kurtsuak adina). Horren adibidea, hau dugu: curriculum-aniztasuneko talde bat (hizkuntzaren eremuko arloa) eta DBHko 4.eko talde bat (irakasgaia: euskara) aldi berean ematea.

Saio horiek altan emateko, saioaren **aktibazio-dateak**, jatorrizko taldeen **plantilek**, saioen **ordutegiak** eta aukeratutako **gelak** bat etorri behar dute.

Datuak gordetzea: ordutegi-taularen leihoa utzi aurretik, egindako aldaketak gorde behar dira.

Saioen edo lerroen arabera gordetzea gomendatzen da, datuak gehiegi metatzea itxaron gabe. Izan ere, datuen transakzioan zerbitzariari edozein intzidentzia gertatzen bazaio, informazio guztia galduko da.

Errefortzuak: irakasle batek baino gehiagok parte hartzen duen saio bati emango zaion tratamendua erabakitzeko, saioan parte hartzen duten ikasleak nork kalifikatuko dituen pentsatu behar da.

Errefortzuko jardueren kasuan, saioen alta irakaslearen ordutegi-taulatik ematea gomendatzen da (saioen kopiak taldetik egitea azkarrago izan daitekeen arren).

Taldeari irakasgaia ematen dion irakasleak taldeko ikasle guztiak aukeratuko ditu (baita errefortzua jaso behar dutenak ere). Errefortzuko irakasleak errefortzua ematen dien ikasleen kopurua adieraziko du. Errefortzuko irakasleari lana "errefortzu" gisa, eta ez "klase-ordu" gisa, aukeratuko zaio. Horiek horrela, aplikazioak ez du ikasle gehiegi hartuko. (Errefortzutako ikasleak aktan gainontzekoekin batera agertuko dira eta kalifikatu ahal izango zaie).

Bikoizketak, errefortzuak eta beste ikasle talde batzuk: gelara bi irakasle sartzen badira (LHn esate baterako), kalifikatzeko irizpidea izango da abiapuntua.

Irakasleetako batek taldeko ikasle guztiak kalifikatzen baditu, aurreko adibidean bezala jokatu da. Irakasle horri "klase-ordua" ikasle guztiekin seinatzen zaie. Beste irakasleari "ohiko errefortzu-ordua" seinatzen zaio eta nahi den ikasle kopurua (gutzikoa, erdia...) adierazten da.

Bi irakasleek kalifikatzen badute, emateko 2 talde sortzen dira saio beraren barruan. Bi kasuetan "klase-ordua" eta irakasgaia aukeratzen dira. Kasu horretan, bi taldeetako ikasleen batuketak bat etorri behar du talde ofizialeko ikasle kopuruarekin. 2 eratan egin daiteke:

- Irakasleen ordutegi-taulatik (gomendatzen den aukera). Taldea aukeratzen da eta irakasle bakoitzak klasea ematen dien ikasle kopurua adierazten da.
- Taularen ordutegi-taulatik. Saio bat sortzen da 1. irakaslearentzat, kalifikatuko dituen ikasleen kopuruarekin. Saio hau sortu ondoren, "zaitu" aukera hautatuko da eta beste saio bat emango da altan, 2. irakaslearentzat, haren ikasleekin. Taldeko ordutegi-taulan zaitutako saioa agertuko da.

Bikoizketen adibideak:

Kurtsu desberdineko ikasleei ematea: ikasle talde bat Lehen Hezkuntzako zenbait kurtsotako ikasleek (adibidez, 1., 2. eta 3. kurtsokoak) osatzea gerta daiteke. Nola jokatu? Talde hori osatzen duten kurtsu adina talde ofizial sortuko dira (aurreko kasuan 3 talde ofizial) eta, geroago, emateko 2 talde sortuko dira: 1. eta 2.eko ikasleekin bata (irakasgaiak berberak baitira) eta 3.eko ikasleekin bestea (irakasgaiak, beste ziklo batekoak izateagatik, ez dira 1. edo

2. kurtsoetakoak). Tutoreak, bere ordutegi-taulan, osatu diren emateko 2 taldeak sartuz beteko ditu ordutegi-taularen laukiak.

Kurtso bereko eta talde ofizial desberdineko ikasleei ematea: adibidez, DBHn jatorrizko talde ofizial desberdinetako ikasleak nahasten direnean eta ikasle horiek maila berekoak direnean. Adibidez: 3.A, 3. B eta 3. C. Emateko saio bakarra altan eman ahal izateko, jatorriko taldeek PLANTILA BERA izan behar dute.

Irakaslearen ordutegi-taulatik (gomendatzen den aukera): taldeak "eranstea" aukeraren bidez, inplikaturako talde bakoitzeko ikasleak aukeratuko dira. Goitibeherakoan plantila bera partekatzen duten taldeak agertuko dira. (Ez da nahiko taldeek "plantila berdinak" izatea; "plantila bera, plantilaren izen bera" izan behar dute). Operazioa inplikaturako irakasle guztien ordutegi-taulan egin ondoren, saio osoa inplikaturako taldeen ordutegi-tauletan jasota agertuko da.

Talde bakoitzaren ordutegi-taulatik: saio berean inplikaturako dauden irakasle (edo irakasgai) adina aldiz egin beharko litzateke aurreko paragrafoko prozesu bera eta, horretarako, taldearen ordutegi-taulan "laukiak zatitzea" aukera erabiliko da.

Batxilergoko talde mistoa: adibidez, 20 ikasleko talde bat: 12 Humanitate eta Gizarte Zientzietakoak eta 8 Zientzietakoak eta Teknologiaokoak.

2 talde ofizial sortuko dira, modalitateko bana, eta tutore bera jarri ahal izango zaie.

2 talde ofizialekoak ez diren ikasle taldeei emandako saio guztietarako (adibidez: irakasgai komunetan) emateko talde bat osatuko da, Humanitateetako 12 ikasle eta Zientzia eta Teknologia 8ek osatua. Talde hori irakasgai komuna emate dien irakaslearen ordutegi-taulatik sortzea komeni da.

Plantila desberdina duten taldeetako ikasleei ematea: ezin dira emateko talde berean egon.

Emateko talde desberdinak sor daitezke, irakasgai bera gela berean eta irakasle berarekin emango dutenak.

Halaber, emateko talde desberdinak ere sortu ahal izango dira, irakasgai desberdinak, gela berean eta irakasle berarekin emango dituztenak. Kasu hau sarritan gertatzen da, DBHko 3.eko edo 4.eko ikasleak (arloak, irakasgaiak ematen dituztenak) eta curriculum-aniztasuneko ikasleak (esparruak ematen dituztenak) nahasten badira.

Taldearen ordutegi-taulatik (gomendatzen den aukera): emateko saio bat sortuko da inplikaturako talde bakoitzerako eta ikasle kopurua adieraziko da. Saio horiek irakaslearen ordutegi-taulan agertuko dira.

Irakaslearen ordutegi-taulatik: saio bat sortuko da plantila partekatzen duten taldeetako ikasleak aukeratuz edo, ez badago plantila partekatzen duen talderik, inplikaturako 1. taldeko ikasleak aukeratuz. Geroago, "laukia zatitzea" aukera hautatuko da, inplikaturako gainontzeko taldeetarako saioa sartzeko sortua.

Ohar garrantzitsua: balidatzeko akats ugari antzeman dira bikoizketa-saioetan: adibidez, saioa irakaslearen ordutegi-taulan agertzen da baina ez taldean; saioa inplikaturako talde ofizialeko batean agertzen da, baina ez gainontzekoetan, etab...Arazoa plantiletan datza: EED betetzean, ikastetxe askotan aldatu edo ezabatu dira datuak sartu ondoren lan egiten hasi zen plantilak. Arazo hau konpontzeko, intzidentzia CAUri jakinarazi behar zaio.

7. IKASTETXE ESPEZIFIKOAK. GELA EGONKORRAK

Hezkuntza Bereziko gela egonkorra dituzten ikastetxe espezifikoek izango dute EEDren aplikazioan taldeak sortzeko aukera.

- Talde espezifiko mota selekzionatuko da goitibeherakoan agertzen direnen artean.
- Aukeratutako taldearen arabera (ikusmen-, entzumen,...elbarrituak), harekin lotutako jarduerak agertuko dira.

8. BATXILERGOA.

Gaueko Batxilergoa eta Urrutiko Batxilergoa: ez dago kurtsorik.

Modalitatearen arabeko kurtso ofizialak sortuko dira eta modalitate bateko ikasle guztiak talde ofizial bakar batean taldekatu ahal izango dira. Horiek horrela, modalitateko akta bakarra sortuko da eta modalitate horretan matrikulatutako ikasle guztiak agertuko ditu.

- Gaueko Batxilergoko taldeetan kurtso gisa "GAUEKO BATXILERGOA " aukeratuko da eta, jarraian, modalitatea.
- Urrutiko Batxilergoko talde guztiak "eguneko " txandakoak izango dira. Kurtso gisa "URRUTIKO BATXILERGOA " aukeratuko da eta, ondoren, modalitatea.

Gainontzeko Batxilergoak: kurtsoari (1.a eta 2.a) eta modalitateari lotutako taldeak sortuko dira.

Irakasgai komunak: komun guztiak aukeratu ahal izango dira.

Modalitate-irakasgaiak: ikastetxean ematen diren modalitate guztietako irakasgaiak aukeratu ahal izango dira.

Aukerako irakasgaiak: erkidegoko aukerako irakasgaien zerrendako guztiak, gehi modalitate-irakasgaiak, aukeratu ahal izango dira. (1.ean, 1.eko irakasgaiak besterik ez dira, modalitate-irakasgai gisa, eskainiko).

9. HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK (HEO).

Hizkuntza Eskola Ofizialen aplikazioaren ordutegi-taulak EEDra behar bezala eramateko asmoz, irakasleek NAN berbera (letra barne) izan behar dute bi aplikazioetan.

EED irekitzean, taldeak, taldeko plantila bat eta irakasleen ordutegi-taulak eramaten dira. Aholkua: ez ukitu ezer eta irakasleari irakasteko ez den karga erantsi. Ezin zaizkie automatikoki sortu direnak ez diren beste plantila batzuk taldeei esleitu, taldeetako ordutegi-taulen datuak galduko lirakeelako.

Hizkuntza Eskola Ofizial batzuetan hilean ostiral batean ematen da klasea. Hau agertzea gomendatzen da, hileko saioaren astean prorrratan banatuz: adibidez, saioa hilean bi ordukoa bada, asteko 30 minutu gisa agertuko dira.

Horretarako, automatikoki sortu den plantila bakoitza berrukitu beharko da eta ostiraleko saioak gehitu beharko zaizkio.

Printzipioz, eskola horiek aktak sortzeko beren sistemak erabiliko dituzte.

10. HEZKUNTZA-ERREFORTZU ESPEZIFIKOKO PROIEKTUA (PREE). (Lehenago PIEEE zena).

Ez daude Hezkuntza-Errefortzu Espezifikoko Proiektuaren aktak. Ez dira taldeetat jotzen. Ezaugarri zehatz batzuetako talde bat indartzeko orduan baliabide bat besterik ez da eta Sailak emandako baliabide batetik aurrera egiten da.

Ikastetxe bakoitzaren antolaketa pedagogikoa zein den alde batera utzita, arloka, gainontzekoei bezala, ebaluatu behar zaie proiektu honetan parte hartzen duten ikasleei. Klase-ordu edo errefortzu-ordu gisa agertu ahal dira ikasle horiek ematen zaizkien saioak. Ikasle horiei nola ebaluatuko zaien hartuko da kontuan bata edo bestea aukeratzeko orduan:

Kalifikazioa mailan ematen duen arloko irakasle titularrak jartzea nahi bada, errefortzu-ordutzat joko da.

Irakasle titularrak talde ofizialeko ikasle guztiei (baita Hezkuntza Errefortzu Espezifikoko Proiektuko ere) emango die klase-ordua. Gainera, errefortzuko irakasleak errefortzuko saio bat izango du proiektuko ikasleekin (talde ofizial batetik edo batzuetatik etorri ahal izango direnekin). Programak ez ditu errefortzua jasotzen duten ikasleak kontabilizatuko.

Ikasle horiek errefortzua ematen duen irakasleak ebaluatzea nahiago bada, orduan emateko taldeak sortuko dira. Programarako ohiko edozein bikoizketaren antzekoa izango da, DBHn adibidez. Bi irakasleek klase-ordua aukeratuko dute. Emateko taldeetako ikasleen batuketak bat etorri beharko du datozen talde ofizialetako ikasleen batuketarekin.

Errefortzuko irakasleak ez du bere ikasleak kalifikatu ahal izateko errefortzu-ordua markatu beharko.

11. ESKOLATZE OSAGARRIAREN PROGRAMAK (PEC)

Ikaslea jatorrizko ikastetxeko talde ofizialetan sartuta egongo da, ikasle horiek ikastetxe horietan baitaude matrikulatuta.

Destinoko ikastetxea (PEC): baimena duten ikastetxeek izango dute PCPI mailan talde bat sortzeko aukera (PCPIko 1. kurtsoa aukeratuko dute, "programa osagarria" programarekin). Taldea eta ikasle kopurua jarri ahal izango dituzte; ez, ordea, ikasleen izena, ikastetxe horretan matrikulatuta ez egoteagatik. Klase-saioak altan emateagatik, eskainiko zaizkien irakasgaiak ondorengoak izango dira:

- Instrumentalak.
- Tailerrak.

12. HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA

Irakasten duten aukerako moduluen zerrenda Ikuskaritzari bidaltzeko eskaera egin zaie ikastetxeei. Modulu espezifikoen karga bat egingo da ikastetxe bakoitzerako.

HHiko taldeak: ideia orokor gisa, sortu beharreko akta adina talde ofizial sortuko da.

Egiten da gradu (eta datozen zirkuluko) talde ofizial bat sortzeko proposamena I., II. eta III. GRADUA EGITEN DUTEN ikasleentzat, hots, esparruak egiten dituzten ikasleentzat.

Gainera, egiten da II. eta III. graduetarako talde ofizial bana sortzeko proposamena, "aukerako irakasgaietara" bakarrik joaten diren gradu horietako ikasle guztiak sartuko dituztenak. Bi talde ofizial horietatik abiatuz, eskaintzen diren aukerako irakasgai adina emateko talde sortuko dira.

Azkenik, talde ofizial bat Unibertsitatera sartzeko kurtsoa egiten duten ikasleentzat eta beste bat heziketa-zikloetara sartzeko.

13. LAGUNTZA-ZERBITZUETARA (BERRITZEGUNEAK, CRI, CEIDA, ETAB...) ATXIKITAKO PROFESIONALAK.

Berritzeguneetara atxikita dauden eta ikastetxeetan klase-jarduerak egiten dituzten profesionalak:

- Jarduera gauzatzen duten ikastetxeetan eman beharko zaizkie altan eta han egiten dituzten saioak sartuko zaizkie.
- "----(-r)ekin partekatzen du ikastetxea" esaera (altan eman zaion ikastetxe bakoitza) agertuko da ikastetxe horietako bakoitzean.
- Jarduera egiten duten ikastetxe adina taulak osatuko dute irakasle horien ordutegi-taula.

Zentro espezifikoetara (ASPACE, GAUTENA, ARANSGUI, etab...) atxikita dauden eta ikastetxeetan klase-jarduerak gauzatzen dituzten profesionalak:

- Jarduera egiten duten ikastetxeetako bakoitzean eman beharko zaie altan eta han egiten dituzten klase-saioak sartuko zaizkie.
- Ikastetxe horietako bakoitzean "----(-r)ekin partekatzen du ikastetxea" (altan eman zaion ikastetxe bakoitza) esaera agertuko da.

- Halaber, atxikita dauden ikastegi espezifikoan emango zaie altan eta ordutegi-taulan haren asteko lanaldia osatzen duen klaserik gabeko jarduerak adieraziko dira.
- Jarduera gauzaten duten ikastetxe adina taulak osatuko dute irakasle horien ordutegi-taula.

Etorkizunari begira, ikastetxeak partekatzen dituzten irakasleen ordutegi osoa lortzeko aukera hartu behar da kontuan, ikastetxe bakoitzean egiten dituzten lan guztiak metatuz.

14. ARAUTU GABEKO MUSIKA-ESKOLAK

Irekitzeko prozesua “daturik gabe “ aukera hautatuz gauzatzeko gomendioa ematen da. (Ikasturte honetan hobe da aurreko bertsioen datuak ez aldatzea).

Oharra: “daturik gabe “ aukerak Hezkuntza Saileko Pertsonal Erregistroan altan dauden irakasleen zerrenda sartzen du.

Gelak: jarduerak egiten diren toki fisikoak dira. Izen bat emango zaie eta haien tamaina zein den adieraziko da.

Plantilak: ahalik eta plantila gutxien erabiltzea gomendatzen da. Arautu gabeko musika-eskola askok **plantila bakar batekin** funtzionatu ahal izango dute, irakasle eta ikasle guztientzat. Datuak errazago sartzeko, plantila **egunean saio bakar batekin**, ikastetxea irekita dagoen ordutegi guztia hartuko duena, egitea gomendatzen da. Adibidez, eguneko saio bakarra adieraz liteke, hasteko ordua: 09:00ak, eta bukatzeko ordua: 22:00ak, adieraziz. Arautu gabeko musika-eskola batzuek bi saio, goizekoa bata eta arratsaldekoa bestea, sortzea nahiago izango dute.

Taldeak: aplikazio honetarako, talde ofizial bateko maila eta espezialitate berean (tresna) matrikulatuta dauden ikasle guztiek talde ofizial hori osatzen dutela interpretatzen da.

Maila eta espezialitatearen arabera emango zaio talde bati altan eta osatzen duten ikasle kopurua adieraziko da.

Atal edo lokalizazio bat baino gehiago duten arautu gabeko musika-eskolen kasuan, talde bati maila, espezialitate eta atalaren arabera altan ematea komeni da.

Sortutako taldearen izena ematean, argi bereiztea komeni da eta, horretarako, anbiguotasunak ekidingo dira. (Ikastetxe batek maila eta espezialitate bereko talde bat baino gehiago sortzen badu, izendatzean argi eta garbi bereizi beharko ditu).

“**Talde ofizialak** “ sortzeko orduan, aurreko argibideen arabera jokatzeko gomendatzen da.

Irakasleen ordutegi-taula sartzean, irakasleak talde ofiziala definitzeko erabili dena ez den ikasle kopuru bati klasea ematen badio (egoera hau arautu gabeko musika-eskolan askotan gertatzen da), aplikazioak automatikoki -emateko taldeak “ sortuko ditu.

Irakasleak:

Lehenik eta behin, irakasleen zerrenda gaurkotu beharko da, gertatutako altak eta bajak sartuz.

Irakasle titular eta ordezkoen tratamendurako, argibide hauen 1) atala ikusi.

Ordutegi-taulak: irakasleen ordutegi-taulari buruzko datuak besterik ez dira sartuko: **klase-jarduerak**. Irakasle batek klase-saio berean talde ofizial desberdinetatik datozen ikasleei ematen badie, ondoren esaten den legez jokatu da:

- Taldeek plantila bera badute, “erantsi “ aukeraren bidez lerro desberdinetan sartu ahal izango zaizkie behar diren ikasle guztiei, jatorrizko taldetik abiatuz.
- Taldeek plantila desberdina badute edo irakasgai desberdina eman nahi bada, lehenago 5. atalean azaldu den “laukia zatitu “ aukera erabiliko da.

15. ATZERRIKO IKASTETXEAK

Atzerriko ikastetxeek derrigorrezko irakaskuntza-taldeetan (Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kurtso baliokideak) bakarrik emango dituzte Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakasgaiak.

Ordutegi-taulak egiteko, urrats horien arabera jokatuko da:

Irakasleen zerrenda gaurkotuko da, zuzendariari eta aipatutako arloak ematen dituzten irakasleei dagokienez.

Zuzendari-kargua betetzen duen irakaslea zein den adierazi behar da.

Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren baliokide diren mailetakoko **talde ofizialei altan ematea**.

Altan ematea derrigorrezko irakaskuntzaren baliokide diren talde bakoitzean lehen adierazitako arloak **irakasteko saioak**. Arlo bakoitza ematearen irakasle arduraduna ere adieraziko da. Arloren bat irakasle batek baino gehiagok emanez gero, emateko taldeak sortuko dira.

Printzipioz, ez da inolako balidazio-kontrolik egingo. Gure sisteman ikastetxe horietako taldeek ez dituzte aktak inprimatu behar.